

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA ALTZIBAR

ZENBATGARREN SAIOA : 3

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-22	19:35	21:05

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Jexux Leonet, Eneritz Arbelaitz, Jon del Olmo, Iosune Cousillas

Kopurua: 21

16-30 urte: 1	Emakumeak: 11	Euskaraz: 19
30-50 urte: 9	Gizonezkoak: 10	Elebitan: 2
50-65 urte: 4		
>65 urte: 7		

AKTALARIA: Iosune Cousillas Aramendi

Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2018	2018ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu da: diru sarreren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2017ko balorazioa	2017ko inbertsioen balorazio orokorra aurkeztu da.
4	2018ko inbertsioak	2016ko eta 2017ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2018rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira. Auzoari dagokionez egin diren eta egitekotan dauden inbertsioak errepasatu dira: - Altzibarko lokala. Obra dagoeneko buketu da. Horren inguruan hainbat kezka atera dira. Ia nork gestionatuko duen, nork erabiliko duen, nork hornituko duen. Printzipioz Altzibarko festen komisiok eta udalak hitzarmen bat sinatuko dute. Baina erabilera anitza izango da denek erabil dezaten. Horrek arauak finkatu beharra eragingo du erabiltzaileen artean. Lokal berriaren gestioa eta funtzionamendua aztertzeko bilera bat egingo da Altzibarko lokal berrian abenduaren 5ean arratsaldeko 19:00etan. - Ugarte zubiko ondoko parkea konpondu da. - Iturriotz-Altzibar espaloia konponduko da. Proiektua onartua



		<p>dago eta 2018 hasieran egingo da. Espaloia argiztatuko da eta Altzibarko eremuan berritu.</p> <p>-Cadarso bota. Auzotar batek esan du ia bertan zer egiteko asmoa dagoen. Ia baloratu den aspaldi eskatu zen frontoi bat egiteko aukera. Erantzun zaio hasiera batean bota eta txukundu behar dela. Ondoren erregeneratu eta jarraian baloratuko da ia zer egin daiteken.</p>
5	Altzibarko lanak	<p>-Motoak aparkatzen dute Agerrealde 6. portalaren azpian. Toki hori pasabide bat da, eta bizilagunak kexatzen dira ezin dela pasa eta haurrek ezin dutela jolastu. Udalari eskatzen zaio arazo hori bideratzeko. Motoentzat aparkaleku gehiago eskatzen dira. Pribatua denez udalak ezin du eskua sartu, eta esan zaie beraiek bizilagunek jarri beharko dituztela neurriak.</p> <p>-Auzotar batek esan du Agerraldeko aparkalekua txikia geratuko dela hemendik urte batera, pensatzen hasi beharko dela beste nonbait egitea. Erantzun zaie udaltzainek jarraipena egiten dutela aparkalekuen egoerarena.</p> <p>-Auzotar batek esan du ia zer gertatzen den pitusarekin. Pribatua da eta udalak ezin du eskua sartu. Plan orokorraren baitan etxeak egin daitezke.</p> <p>- Ugarteren ondoko aparkalekuan dauden karabanekin ia zer egin daiteken. Iaz ere gai hau hitz egin zen eta baztertu egin zen autokarabanentzat debekatutako kartela jartzea. Erantzun da jarraipen bat egin zela bere garaian. Une honetan ez dago irtenbide zehatzarik, baina buelta batzuk emango zaio berriz ere gaiari.</p> <p>-Auzotar batek galdetu du ia Mikelete kalean zerbait egiteko asmoa ote dagoen. Orain bertan egingo den obraren ondoren aukera ona izan daitekela bertan zerbait egin ahal izateko. Altzibarren beheko eremu hori eta Agerrealde urbanizatzea faltako litzatekeela erantzun da.</p> <p>- Olalde etxeetan atzeko zelaian zakur kaka pila bat izaten da. Auzotar batek esan du udalera eraman zutela proposamen bat kartel batzuk jartzeko eta ia zerbait egiten den horrekin. Erantzun zaio zakarrontziak jarri direla. Horrekin ez omen da nahikoa, eta gaia berraztertu beharko dela erantzun da.</p> <p>-Olaldeko parkea haur oso txikientzat egina omen dago. Eskatzen dute Olaldeko berdegunean tirolina bat jartzea erabilera handiago izan dezan. Erantzun da Altzibarren hiru parke badaudela, adin desberdinentzako haurrentzat prestatua. Hala ere, proposamena jaso da eta noizbait aukera izanez gero, agian jar liteke.</p>



		<p>-Agerralde 1. portalean baldosa batzuk hautsita edo solte daude. Horiek konpontzea eskatzen da.</p> <p>- Bidegorrian argiteriaren lanak ia noiz egingo diren, noiz berrituko diren galdetu da. Erantzun da momentuz ez dagoela aurreikusita, baina buelta batzuk emango zaizkiola gaiari.</p> <p>- Goiko eskoletan hurrekin egoteko ia gela libreren bat ote dagoen galdetu da. Erantzun zaio ezetz ez dagoela toki libererik. Funtzio hori lokal berriak bete dezakeela erantzun da.</p> <p>-Oinbusaren inguruan informazioa eskatu da. Eneritzek horren inguruko informazioa zabaldu du. Badirudi eskola eta ikastolan zabaldu den informazioa ez dela oso zuzena.</p> <p>- Altzibarko eskola zaharra ia norena den galdetu da. Udalarena da.</p> <p>-Bilera amaieran herritar bat gerturatu da proposamen bezala bidegorriko zuhaitzen plakak berriro jartzea interesgarria litzatekeela esatera.</p>																				
6	Balorazioa	<p>Balorazio orriak bete dira.</p> <table border="1"> <tr> <td>Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak</td> <td>8,94</td> </tr> <tr> <td>Hizlariak: ondo gidatu dute bilera</td> <td>8,89</td> </tr> <tr> <td>Bileran erabili den metodologia</td> <td>8,82</td> </tr> <tr> <td>Herritarren asistentzia: kopurua</td> <td>5,33</td> </tr> <tr> <td>Herritarren partehartzea</td> <td>6,88</td> </tr> <tr> <td>Saioa probetxugarria izan al da?</td> <td>8,24</td> </tr> <tr> <td>Egunaren egokitasuna</td> <td>8,63</td> </tr> <tr> <td>Orduaren egokitasuna</td> <td>8,44</td> </tr> <tr> <td>Lekuaren egokitasuna</td> <td>8,81</td> </tr> <tr> <td>Denera batz beste</td> <td>8,11</td> </tr> </table>	Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,94	Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,89	Bileran erabili den metodologia	8,82	Herritarren asistentzia: kopurua	5,33	Herritarren partehartzea	6,88	Saioa probetxugarria izan al da?	8,24	Egunaren egokitasuna	8,63	Orduaren egokitasuna	8,44	Lekuaren egokitasuna	8,81	Denera batz beste	8,11
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,94																					
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,89																					
Bileran erabili den metodologia	8,82																					
Herritarren asistentzia: kopurua	5,33																					
Herritarren partehartzea	6,88																					
Saioa probetxugarria izan al da?	8,24																					
Egunaren egokitasuna	8,63																					
Orduaren egokitasuna	8,44																					
Lekuaren egokitasuna	8,81																					
Denera batz beste	8,11																					

Komunikazio bideak	%
Kartelak	8
Prentsa/irratia	16
Whatsappa	28
Ahoz aho	0
Udal aldizkaria	12
Internet	36